

Euskara eta erromantzeen artean izan diren harremanen historiaz

Maite Etxenike Elizondo
Valentziako Unibertsitatea

0. Euskaltzaindia eta Patxi Goenagari nire eskerrik bizienak eman nahi dizkiet Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarrera etortzeko egin didaten gonbiteagatik. Euskal Herrian bizi ez banaiz ere, Valentzian baizik, eta kultura hispaniarra aztertzeaz arduratzen naizenez gero, nire ikerketei eta neure pertsonari batez ere dagokionez hemengo sentitzen naiz. Beraz, eskerrik asko bihotzez, atsegin handiz etorri naiz benetan zuengana. Bestaldetik, Patxi Goenaga jaunak galdetu zidanean ze hizkuntzatan hitz egiteko asmo nuen, zalantzarik gabe “euskaraz” erantzun nion. Badakit euskaraz hitz egiteko ohitura falta zaidala, baina gaurko egunerako egokiagoa iruditzen zait eta horretan saiatuko naiz, nahiz eta niretzat euskaraz egitea hain bada ere.

Valentzian bizitzeak, bi hizkuntz artean, hau da, gaztelania eta katalanaren artean izaten diren harremanak ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Beraz, alde horretatik gaur hitz egin behar dudanarentzat badu bere abantaila. Baina, bestaldetik Euskal Herritik kanpo bizitzea euskera hobetzeko, batez ere hizketa mailan, ez da hain egokia izaten. Horregatik benetan eskertuko genizueke nire euskararen lerroak kontuan ez bazenute hartzuko, baizik eta euskararen bidez esan nahi dudana. Eskerrik asko aurretik.

1. Duela gutxi pentsatzen zen bi hizkuntza desberdinen artean hizkuntza batek ez lezakeela eraginik bestearen gramatikan. Soziolinguistikaz geroztik, ordea, datu linguistikoen eta soziolinguistikoen artean azaltzen den lotura garbi ikusiz, lotura hori gaur egun benetan garrantzitsua estimatzen dugu.

Badakigu kontaktuaren bitartez sinkretismo batzuk euskaraz (-ko eta -tzaren artean gertatzen dena, besteak beste, -tzat desagertzen ari dela: *medikuarena* <-*medikuarengana* ordeztasun esaten da, eta abar) sartu direla edo hizkuntz kontaktuen eremuan askotan elementu espresiboak mailegatu izan direla (ezeztapen-izenak bezala eta abar), Martin Haasek (1995) adierazi zuen bezala (eta baita konparaketa diakronikoa egiteko proposamena egin ere). Aldaketa horien ondorioak eta zergatik horrela aldatuak izan den jakiteko, Haasek oinarri teoriko garrantzitsua indartu zuen: kontaktua eragina lexikoaren eremuan hasten dela, eta hortik gramatikaren eremuan gero eta gehiago sartu: fonema berriak hitzen bidez sartzen dira hizkuntzan, ezeztapenak hitz espresiboak bezala mailegatu dira lehendabizi funtzio gramatikala hartu baino lehenago, eta abar.

Nik gaurkoan lexikoaren arloari buruz batez ere (ez bakarrik, baina bai parterrik handiengan) hitz egingo dut, beste hainbat kontaktuen ondorioak alde batera utziz,

Haasek berak ematen duen oinarri teorikoarekin ados natorrelako, hau da, kontaktua (hizkuntz kontaktua jakina) lexiko bidez hasten dela. Beraz, gaurkoan lexikoari buruz arituko naiz gehienbat, han eta hemen euskal erromantze harremani buruz barreiatuak dauden hainbat lanen nire iritzia emanaz. Eta norbaiten lana edo lanak aipatzen ez baditut, gaurkoan denek egin dituzten ikerketei buruz hitz egiteko astirik izan ez delakoan izango da, ez beste arrazoiengatik.

Jakina denez, euskara-erromantze artean izandako harremanen historiak argi eta garbi hiru mugarri ekartzen digu: a)-Schuchardt aurretik egindakoa, b)-Schuchardt eta Mitxelenaren denboraldi artean izandako idazlanak, eta c)-Mitxelena eta Mitxelenaz geroztik egindakoa.

Euskal hiztegi-gintzaren historiari begira, Sarasola, Urkizu, Knörr, Lakarrak, gero Azkarate eta Goenagak eta abar...eginiko idazlanen bitartez dakigu lau mugarri garrantzitsu eta adierazgarritzat jotzen dutenak badirela¹: a)-Larramendi, b)-Azkue, c)-Mitxelena, eta d)-Mitxelenaz geroztik egin dena. Beraz, Mitxelena bera mugarri garrantzizkoena azaltzen den ezker, beraren hitz batzuk ekarriko ditut orain abiapuntu modura:

“Vasconia, como área marginal, constituye una zona de refugio de prácticas, creencias, costumbres y técnicas de fecha muy diversa, como su lengua es puerto donde se han cobijado tantas palabras y expresiones latinas y romances caídas en desuso en los lugares de procedencia”(1960a).

Nik nire ikerketak erromantze aldetik egiten ditut jakina denez, Espainiar edo Filologia Erromaniko ikuspegitik (besteak beste, ikus 1987² eta 1998), baina badago euskararen erromantzearen eragina, eta hori Euskal Filologiarentzat interesgarria da eta gaurkoan horretaz mintzatuko naiz. Bi ikuspegi hauek banatu egin behar dira eta banatan saiaturko naiz nire hitzaldiaren zehar, baina ahaztu gabe biak oihalaren edo txanponaren aurki eta binperra edo alderantzikoa direla (hau da, gauza berak agertzen dituen aurpegiko eta azpiko aldeak: “aurki guziak bere binperra”).

Beraz, gaztelanian euskararen eragina nolakoa izan den alde batera utziz, hitz egin dezagun euskararen barnean dauden latina edo erromantzeen eraginari buruz.

2. Euskal eta erromantzeen artean izan diren harremanak latinetik datoz, latina erromantze bihurtzen ari zenetik. Betidanik, esan nahi dut, hizkuntzalaritza zientzia zientifiko-teoriko modura moldatzen ari zenean, batez ere Hugo Schuchardten garaitik, euskara latinez beterik dagoela dakigu. Hori nabarmena da lexikoari begira: aspalditik dakigu *pake*, *merke*, *aingeru* eta hainbat eta hainbat hitz “latinetik euskarara” etorriak direla, Segura Munguía eta Etxebarria Ayestaren liburuak (1996) titulu esaten duen bezala, eta hainbeste eta hainbeste hitz gehiago euskaraturik izan diren bezala. Hori dena, Filologia aldetik edo hizkuntzaren historia aldetik ez da bate-re gauza erraza jakitea nondik edota noiztik dugun hitz horiek euskararen bizirik eta hori ia kasu guztietan agertzen zaigu. Baina, esan bezala, orain arte euskararen bihotzeraino (esan nahi dut, mamiraino) zer bidetatik sartu diren ezin izan dugu argitu ezta kronologiaren xehetasunetan sartu ere.

Dena den, zalantzarik gabe arlo honetan lan garrantzitsuenak egin zituena gure Mitxelena izan zen. Berak eskema berri batean artikulatu (moldatu) zuen euskal historiari buruz jakin genuena (Lakarrak gaur esan duen bezala, baita Miren Azkaratek atzo goizean, eta hainbat eta hainbat), eta ordutik euskara eta erromantzeen artean izandako harremanak maila zientifiko-teoriko egoki batean aurkitzen dira.

1 Ikus batez ere Lakarra (1998).

Jakina denez, latina dugu laguntzarik hoberena euskara hizkuntzen artean bakardadean izan ez denik adierazteko. Latinetik hartu zituen hitzen bitartez euskararen historia zerbait gehiago ezagutu ahal dugu; hori ere Mitxelena esan zuen eta Gorrotxategik aipatzen du maiz².

Euskara eta erromantzeen artean izandako harremanak denboraldi luzeena irauan duten eta edozein hizkuntzen artean ezagutzen dugun harreman iraunkorrenak izan direla esan daiteke: gaztelania Hego Ameriketako bost mende bakarrik darama eta gauza bera gertatzen zaio ingelesari Ipar Ameriketako edo frantsesari Kanadan edo suediarari Finlandian eta abar. Baliteke laponiar eta suomiarraren artean izan diren harremanak euskara eta erromantzeen artekoak baino luzeagoak izatea, baina ez daukagu dokumenturik edota nolana hiko lekukotasunik denboran hain urrutiraino joateko.

Hainbeste mila urteren buruan irauan duen hizkuntzaz hitz egiterakoan ezin inola ere ahantz eta aztertu gabe utz hainbeste eragin izan duten hizkuntzaren kanpo-arrazoiak. Pentsa dezakegu hainbeste mila urte irauan duten hizkuntzei buruz mintzatzeko ari garela, ez hizkuntza bati bakarrik buruz. Kontua da, kanpo-arrazoiak aparte, hizkuntzaren barruan aurkitzen direla lekukorik egokienak (Mitxelena berak garbi utzi zuen bezala) eta euskara barruan daukagu hainbeste latin eta erromantze.

Horretaz, euskararen historiara ateratzen den garaia alde batera utzita (gaur goizean Gorrotxategik hitz egin du horretaz zorrotz eta zeharo), goazen hizkuntza harremanen hasierari buruz hitz egitea.

3. Badakigu euskara eta erromantzeen arteko harremanak muga historikoa dutela: erromatar presentzia Euskal Herrian. Ordurako euskarak batasun falta adierazten du, azaletik aztertzen badugu, baina gauza bera gertatzen da latinarekin eta esanik ez lehendabiziko erromantzeekin: batasun falta. Latinak, ordea, bazuen ordurako milaka liburu eta gramatika anitz idatziak, ezta bat ere euskarak.

Garai hartan jende gutxiak zekien idazten edo irakurtzen; beraz, erreferentzi eredu Hispanian, batez ere Hispaniako Iparraldean, hizkuntzaren aldetik (latinaren aldetik lehendabizi eta erromantzeen aldetik apur bat geroxeago) erabat galdua zen. Badirudi euskal erromantze harremanak hizketa mailan hasi zirela, hizkuntzen arteko "kontaktuetan" normalean gertatzen den bezala. Horrek esan nahi du, beste alde batetik, latin arrunt edo berankorrenekin euskara kontaktuan egon zela, zeren eta latin arrunta deitzen duguna izan zen hizkuntza erromanikoen oinarria, ez latin klasikoa.

Batzuentzat, gehienentzat, gaur egun arte, erromanizatzeko prozesua Euskal Herrian gertatu ez zen ezker, latinaren eragina euskarari (hona hemen beste liburuarren titulua, Luis Mari Mujikak 1982an eginekua) V-VI. garren mende aurretik ezinezkoa izan zen haienentzat, VII. garren mendez geroztik baizik; Mitxelena zenak berak ere gauza bera uste zuen, nahiz eta nere lanarekin aurrera egiteko esan hainbeste aldiz (eta ez esan bakarrik, baita idatzi ere eskuz³). Baina asken urte hauetan gero eta argiago azaltzen da erromatarrek Euskal Herriaren bihotzeraino ailegatu zirela, eta ez aile-

² Ikus, batez ere, Gorrotxategui (1995 [1997])

³ Hona hemen eskutitz baten zati bat: "Ya sabe V. que estoy convencido de que su *Historia lingüística vasco-románica* será un trabajo del mayor interés. En V. se juntan dos clases de saberes que rara vez se dan todavía juntos entre nosotros. Es V. una hispanista, mejor una romanista, cuyos méritos están públicamente reconocidos y avalados por publicaciones de cuya calidad no cabe dudar. Además de ser vasca, es V. bascongada, es decir, euskaldun, y puede ver las cosas desde la otra vertiente, que no es opuesta, sino complementaria de la anterior...No estamos sobrados, al menos en nuestro campo, de personas de vocación y capacidad demostradas. Me permitirá, pues, que, señalando feamente con el dedo, le diga que V. pertenece a lo muy poco que tenemos en un campo crucial para nuestros estudios. Beste bat arte, bihotzez, Luis Michelena".

gatu bakarrik, baizik eta gure artean bizi ere edo gutxienez euskal jendeen ohiturak konpondu erromatarren bizimoduak asimilatu arte (eta “asimilatu” horri buruz ez dut gehiagorik esango). Orduko lekukotasunek gero eta gehiago adierazten dute Euskal Herria erromatar eraginatik aparte bizi ez zela. Esate baterako, Zarautz aldian (Aranzadi taldeak aurten eta hil hauean Erromaren eraginaren seinaleak oro eman digunez, Elkano izeneko auzoan batez ere), Irunaldian, Veleia zer esanik ez, eta abar.

Erromatarren garaian, Rosa Miren Pagolak (1995) idatzi zuen bezala, “bi indar kontrajartzen dira. Latinizazioa bata, baina euskararekiko permisibitatea, edo nolabait esateko,...baskoien eta erromatarren elkarren arteko komunikazio horretatik euskarari sortzen zaion *modus vivendi berezia*”⁴.

XXI. mendean aurkitzen gara, eta mende honetan testuen hizkuntzalaritzak alde batetik eta soziolinguistikak eta pragmatikak bestetik, bata bestearen beharraz ohartu bezain laster, elkar osatu eta aberastu egin dute. Ondo dakigu euskararen historia erromatarren presentziarekin argitzen dela (baita mugen aldetik Euskal lurraldeenak gero eta gehiago gutxitu egin direla ere, ezaguna den ezker). Gure historiaren denboraldi ilunenetako bat—Goi Erdi Aroa—aztertzeko metodo historikoaz baliatzeak eraman zituen arkeologo batzuk azterketa sistematikoak egitera, baina estudio hauek bildu den informazioa, hala ere, sakabanaturik aurkitzen da, batez ere argitalpen monografikoetan, historia kongresuetarako aktetan, aldizkari zientifikoetan. Filologiaren aldetik hemen agertzen den *corpusa* biltzeko dugu oraindik ere.

Hala eta guztiz ere, esan dezagun azken urteotan egin diren azterketek Euskal Herrian biztanlego autoktonorik bazegoela agertzen dutela. Baina azterketei dagokienez egin den lanaz gain, ikerketa honek dagokien beste alde batzuk ere azpimarratu nahi ditut. Alde batetik, euskarak latinetik jaso duen materiala oraindik gehienez kronologikoki sailkatu gabe dago, eta horretarako ahalegina egitea behar dugu ikerketa zientifikoagoa lortu nahi bada: Segura eta Etxeberriak katalogatzen egin duten lanaz gain, sailkapen kronologikoa behar dugu. Beste alde batetik, ikerlan honek informazio ugari ematen digu euskararen historiari buruz, garaiko biztanleek kokalekuei buruz genekiena aberastuz.

Nolanahi ere, badirudi Euskal Herriko beheko partearen jendea, erdi-hegoaldekoa, alegia, erromatarrekin bat egin zela. Goiko partea, ordea, baliteke bat ez egitea, baina erromatarrekin harreman anitz izan zutela ez da, nire ustez, zalantzan jarri behar den kontua, eta harreman estuetan egongo zirela gainera. Honen eragina hizkuntzan agudo igerriko da: Euskal Herrian toki batzuk (batez ere hiriguneak) lurralde elebidunak bihurtzen dira eta nire ustez ordurako elebidunaren bitartez azaltzen da gaztelania Hegoalde lurraldetan alde batetik, eta gaskoia, okzitaniarra eta frantsesa Iparralde lurraldeetan bestetik: tartean ere nafar erromantzea (gaur egun desagerturik dagoena) eta aragoiera (okzitaniarrarekin zer ikusirik duen hizkera) Pirinioen bi aldeetan izanez.

Bestalde, V-VI. mendetik baditugu hobeto ezagutzen ditugun hilarriak, batez ere Agustín Azkaratek eginiko lanari esker (1996). Estela edo hilarri hauek argi eta garbi adierazten dute V. eta X. mende artean, Hegoaldean eta baita Iparraldean ere (eta hori dena azaleko seinaleak bidez) euskara bizirik zegoela Euskal Herri osoan. Mitxelena, Gorrotxategi, Lakarra eta abarrek egin duten lanaren bitartez argi ikusten da antzinako lekukotasunak euskal hizkuntzaren batasuna azaltzen dutela erromatarren garaian. Baina nire ustez horrekin bat dator erromantzea Hegoaldean eta Iparraldean sortzen ari zela susmatzea (ikus *Enego* hilarri batean, *Enecoren* ordez).

4 Antzeko zerbait esaten du Sayas jaunak RIEVeko idazlan batean, geroxeago aipatuko dudana bezala.

Falta zaiguna da, nire ustez, garai hartako batasuna azaltzea erromantzeen aldetik edo, nahi baduzue, latin arrunt edo, hobeto esan, berankorraren aldetik. Hona hemen idatzi nuena 1998an:

“Sin negar validez a la sólida argumentación que permite establecer la existencia continuada de lengua vasca desde época antigua en un territorio relativamente homogéneo, lo que parece menos justificado es negar mayor envergadura de la reconocida a la latinización, sobre todo teniendo en cuenta que en la totalidad de ese mismo territorio habrá romance en el futuro (con sus variedades perfectamente explicables por razones históricas) de forma ininterrumpida. Por lo tanto, si la presencia de testimonios aislados de carácter vasco permiten inferir la existencia de lengua vasca en tal territorio con la ayuda de datos procedentes de otras vías (fundamentado todo ello con más peso en el hecho de que se haya conservado hasta hoy una lengua derivada de ella en límites geográficos más o menos semejantes), la misma presencia de nombres latinos en el mismo territorio (en el que, por añadidura, el contacto vasco-latino está testimoniado por la existencia de préstamos en el léxico vasco), en el que más tarde surgirán variedades románicas que llegan hasta hoy tras procesos de nivelación, debe ser interpretada como cartografía en germen de la emergencia de tal romance posterior”.

Garai hartan latinak ematen digu, beraz, euskararen topografia, baina, baita erromantzearen topografia ere (esan bezala, *enego* azaltzen da, *enecoren* ordez, hila-ri batean eta horrek erromanizatzeko prozesu martxan zegoela esan nahi du). Bestalde, gogoan eduki behar dugu euskara hizkuntza bat bezala ailegatu dela gaur arte; erdara, edo erromantzea, ordea, hizkuntza bat baino gehiago bezala: euskara harreman estuetan izan da erromantze desberdinekin, eta horrek, nahi eta ez, eragin desberdina inprimatu zuen euskararen mamian: hizketa mailan erabat desberdina; idatzi mailan, aldiz, latina batasun presioa izanik.

Baskoiek ez zuten erromatarren aurkako indarririk egin, erromatarrek eta baskoiek elkarren artean aski armonia olean bizi zirelarik, dirudenez. Kontua da, noiz edo noiztik edo haienetako zenbait bihurtu ziren “baskoak”, hau da, euskaldunak modura, esan nahi dut, historia ikuspegitik: antzinako baskoi batzuk edo denak euskaldunak ala ez, edo eta “baskoi” aipaturiko izenak noiz edo noiztik “euskalduna” esan nahi ote du.

4. Badirudi euskara erromantzeen sustraia izan dela, denborarekin desagertu egin dena toki guztietan, hau da, Katalunian, Aragoian, Pirinioetan bereziki. Bizirik dagoenean, bestalde, euskara erromantzearen “adstratoa” izan da. Ez dirudi ordea euskara inoiz superestraturik izan denik, nahiz eta Euskal Herrikan kanpo joan Errekonkista garaian (geratzen diren arrastoak Espainiako toponimian edo adstratu bezala geratu zirela dirudi), Merino Urrutiaren garaitik (1978³) dakigun bezala, Ameriketara heldu baino lehen oso ezagun den bezala. Horretarako, euskara ez dela inoiz superestratu moduko eraginik adierazi, baliteke arrazoia izatea euskara ez dela behin ere kolonizazio hizkuntza izan ezta ere “lingua franka” izan denik: ez dakigu, edo nik behintzat ez dakit esan zergatik. Badirudi euskaldunek “lingua franka” bezala beste hizkuntzak erabili omen dituztela beti: latina, erromantzea eta abar. Normala dela dirudi, hizkuntza edo dialekto desberdinetakoak izanik, harreman estuak dituztenek elkar ulertzearen hautatzen duten hizkuntza edo aldaera dialektala euskara ez izatea, baizik eta beste hizkuntza edo aldaera errazago edo errazturiko bat.

Beraz, ez dago arrazoirik latin hizkuntza Euskal Herrian izan ez zela mantentzeko. Alde horretatik, bada, eztabaida eten egin dela esango nuke, zeren eta horrek ez du esan nahi euskarak (Euskal Herriak berak bezalaxe, jakina) bere nortasuna galdu egin zuenik: Sayas Abengoechearen (1999), “Erromaren gainbehera aldian eus-

kal herriak bere kultura indar berritu [bai] zuen” (baina latinetik behar zuena hartuz. Gainera, Erroma suntsitzera joan zenean, beste kolonizatzaile beldurgarriago batzuk, esan nahi dut, beste indar politiko berria azaldu zen Euskal Herri inguruan, hau da, germaniar herria) eta ondoren bigarreneko erromanizazio prozesua, Caro Barojak hainbat aldiz idatzi zuenez.

Ni neu bere garaian euskara-erromantze harremanak antzinatik (aspalditik) datozela adierazten saiatu nintzen, jakina denez. Hona hemen orain dela hamazortzi urte idatzi nuena (1983):

“Aunque pensemos que, en la época de la latinización, el latín no pasase de ser una lengua franca o pidgin y quizá, por lo tanto, no materna (en terminología de Stewart, es decir, que no se transmitía de una generación a otra en el seno familiar, sino que era aprendida con fines comerciales o de otra índole por hablantes de lengua vasca), en un momento dado tuvo que convertirse en tal, ya que el romance de toda esa zona es autóctono, derivado del latín directamente y no importado de áreas circundantes o, por lo menos, no tenemos fundamento para pensar lo contrario. Esto nos hace creer que tuvo que existir forzosamente un bilingüismo vasco-latino o vasco-protorrománico del que surgió el romance. Quizá la comunidad bilingüe vasco-latina o vasco-protorrománica fuese pequeña en un principio; presumiblemente correspondería a los grupos dominantes del país y de ellos fue extendiéndose a otras capas de la población”.

5. Bestaldetik, arabiarren presioa ere hegoaldetik nabaritzen da euskaraz mende batzuk geroago: *albaitari*, *azenario* hitzak arabieratik datoz, *azukre* (ikus honen aldaerak, gaztelaniatik, frantsesetik eta abar zuzenean etorriak direla esana: ¿non ibiliko zen lehenago *zukrea*, ¿katalanean edo euskaran?) Ezaguna da, bestalde, garai hartan arabiarrek errege euskaldunen alabekin ezkontzen zirela, baina emakumeek bere kulturari eusten omen zioten: badirudi erromantzea hizkuntz komunikatiboa izan zela arabiar eta euskaldunen artean, lingua franca bezalako (berehalaxe aipatu zela zentzuan). Gaur egun, arabiarren eragina euskaraz aztertu gabe dugu.

6. Denborarekin erromantzeak latinera itzuliko dira eredu bila, baina hori gertatuko da erromantze bakoitzak bere mugak ipini dituen finko beste erromantzeei begira. Orduan latinak erromantzearen nortasuna aberastu egingo du, latina beste hizkuntza izango balitz bezala eta beste hizkuntza zelako; euskararekin ere gauza bera gertatuko da eta hauxe da arrazoia latina euskararen ereduia izan zelako esplikatzeko. Erabat interesgarria iruditzen zait Tartasek (*Onsa hilceco bidian*) “templum honoris” *ohoriaren templa* bezala itzultzen duela ikustea (Echenique, 1998): latinetik euskara edo latinetik latin euskaratura, horrek ez du azken finean inporta.

Honek denak garrantzi handia izan du euskararen etorkizunean eta garbi agertzen du zeinen garrantzitsuak diren hizkuntzaren historian alboko edo inguruko hizkuntzak: latina lehendabizi, gero arabiera eta erromantzeak azkenik: nafarrera (hau da, nafar erromantzea), aragoiera eta katalana (bi azken hauek toponimian azaltzen diren euskararen arrastoen arabera behintzat eta baita lexikoan ere [Echenique, presatzen **b**]).

7. Euskarak eta erromantzeak, batak nahiz besteak zabaldu egin dute bere lexiko trinkoa, batak bestetik hainbat hitz hartuz. Azken urte hauetan euskara-erromantze lexikoari buruz eginiko lanek bultzada nabarmena ezagutu dute, orain arte eginitako ikerketak metodologiaren aldetik azken batean aberastuz: Rohlf, Mitxelena, Caro Baroja, Mariner, Echaide, Zárata, Irigoyen, alde batetik, eta bestetik Segura / Etxe-

barria, G. Torres, Peillen, Josu Gómez, Mitxelena eta I. Sarasolaren *Euskal Orotariko Hiztegia*, eta Aguden *Diccionario etimológico de la Lengua Vasca* ahaztu gabe, baita Corominasen *Hiztegiak* ere, Mitxelenak maiz idatzi zuen bezala⁵. Orain gaude, nire ustez, garai egokienean, euskara eta erromantze sistemen arteko harremanak, lexikolari dagokionean zehatz eta sakonki aztertzeko, berehalaxe esan bezala bata bestea aberastu egin duela kontutan hartu ezker eta gogoeta hau abiapuntu modura hartzen badugu behintzat, eta nik halaxe hartzen dut.

Egin dudan lan batzuk gaztelaniari dagokion garrantzia bilatzen eginik dira, baina arazo honek badu bere alderantzi, hau da, euskarak beste hizkuntzetatik hartu dituen hitzak zein bidetatik, zein denboratan, zein modutan eta abar, hizkuntzaren bihotzeraino ailegatu diren. Besteak beste:

- *Salto ta brinko*: *Euskal Orotariko Hiztegiak* jasotzen du ("salto ta brinko zebiltzan kuarto barrenian...), s.v. *brinko*⁶ edo *bringo*. *Salto ta brinko* ez da hitz mailegua bakarrik, baita esapide edo lokuzio modura egituratu den segmentua. Horrek esan nahi du euskararen mamiraino sartu dela, hitzen azalean gelditu gabe. Bestalde, *brinkoren* eratorri ugari samar dugu: *brinkari*, *brinkolari*, *brinkatu*, *brinkoka*, Iparraldean eta baita Hegoaldean ere aspalditik ezaguna direnez gero.
- *kuartillo*, *kuartillu* jasotzen du *Euskal Orotariko Hiztegiak*, erdaratik etorria eta erdaratan atzizki txikigarriekin erabilia; gero, euskaratan arintzen da berriro ere, *kuartilotxo*, *kuartilotxu* esanez.

Hainbat eta hainbat mailegu dugu euskaldunen tradizioan indarrez beterik erabili direnak, EOHk azaltzen duen bezala.

Oso garrantzitsua da kasu batzuetan euskararen egitura barnean gertatu dena gogoratzea: maileguen bitartez, euskarak markagailu morfologikoak adierazi ditu, bere gramatikan ezagutuak ez zirenak. Aspalditik dakigu latinetik hartutako *erregiek erregina* egin zuela femeninoa, latinean ERREGINA zelako hitza zein erromantze modura moldatu zuelako, eta hortik euskarak ahal izan du atzizkia: *erregina*, *birjina* (hemen malgukari bezala, *birj.*- bera ez da ezer euskeraz, ezin da segmentatu, baina eredu bezala badu bere funtzioa; erreginan, orde, eranskaria dugu, ahal delako *-ina* morfema bezala kendu), baita beste batzuk ez hain ezagunak ere: *koinatu* / *koinata* esate baterako. Alternantzia honen azpian duguna da euskaratan latinezko maileguak batzuetan neutrotik hartuak izan direla (*mizpiru*, *mizperu*), eta bestetan femeninoatik (*mizpira*, *mizpera*); beste kasuetan mailegu bikoitza azaltzen zaigu: *historia* / *istorio* (bata nahiz bestea étimo edo erro berdina dute, gaur egun erabat desberdinak izanik). Zer esanik ez *serorari* buruz (Hegoaldean batez ere elizaren eguneroko ardura duen eta zenbaitetan apaizari laguntzen dion emakumea, sakristauaren emaztea batzuetan, eta Iparraldean batez ere moja bezala erabilia) eta bere eratorpenak (*serorategi*, *seroragai*, *serorago*, *seroratu*, *serora-etxe*); *serora* SORORE latinetik dator, eta bukaeran duen *-a* hori artikulu edo *-a* organikoaren modura finkaturik dago (eta hiztegietan *-a* berarekin azaltzen da), baina baita femeninoaren markagailu morfologikoa bezala ere, hau da erromantzetik hartuta femeninoarekin loturik dago.

Zalantzarik gabe euskal lexikoaren ikerketa zehatza erabat balio handikoa agertzen zaigu euskara-erromantze arteko harremanak hobeto ezagutzeko. Kontuan hartu behar da, gainera, azken urte hauetan euskal hiztegi gintza berak aurrerapen handia

5 Honi buruz zerbait esaten dut azaltzeko (a) dagoen artikulu batean.

egin duela, egoera hobe bateranzko urratsak eginik. Historiaren ikuspenetik falta zaizkigun puntuak hauexek dira: mailegu bakoitzaren sartze garaia ezagutzea, baita nondik euskarara sartu den ere, hau da, zuzenean latinetik edo erromantze zehatz batetik (zeren eta batzuetan garbi dago hitz konkretu bat gaskoitik harturik dagoela⁷; bestetan, ordez, ez da hain garbi ikusten). Esate baterako, euskarazko *ganbara*-k latinezko *camara*-rekin badu⁸ zer ikusirik, baina zein bidetik etorri zaigun ikustea ez da hain erraza: baliteke erromantzezko *ganbratik* etortzea (nafar erromantzean *cambra*, *gambra* ezaguna dugu, baita aragoieran edo gaskoian) edo zuzenean latinetik. Esan dezagun *ganbara*-k beste hitz batekin zerikusirik baduela, *ganbarote* hitzarekin esan nahi dut. A. Etxaidek Orion aurkitu zuen *ganbarote* hitza *ganbara* bezala erabilia, baina esan behar dut Zarautzen ere gutxienez *ganbarote* erabat bizirik dagoela. *Ganbarote*-ri hurbiltzen zaio gazt. *camarote*. Larramendik jaso zuen *ganbaroste* “recámara” balioarekin⁹, eta happax bezala agertzen da Mitxelenaren *Euskal Orotariko Hiztegia*-n. De facto, Corominasek¹⁰ gazt. *camarote* gaskoierazko *camarototik* datorrela esaten du bere *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*-n. Susmatzeko da euskarak *ganbara* nafar erromantzetik hartu zuela eta gero *ganbarote* gaskoitik ‘ganbara’ adieraz zeharkatu. Hau izan litekeena da, edo behintzat oraindik argitu gabe dugun arazoa.

Bestalde, euskal erromantze toponimoak agertzen dira, Masu Nittak (prestatzen) aztertu duen bezala, hizketako egoeran bi hizkuntzen arteko hitzak batera erabili izan direnez. Esate baterako Juncáriz (Vizcaya) (Barrancos de *Juncáriz*, Campos de *Juncáriz*, Fuente de *Juncáriz*, Pozos de *Juncáriz*) “probable combinación de sinónimos interlingüísticos como rom. *juncar* + *de* + *vasc. i, ihi* ‘junco’ con sufijo abundancial *-tz(e)*, *-tza*”¹¹ dela dirudi. Badakit Matias Múgikaren lanetan (1996) eta abar beste ikuspuntu batzuk azaltzen direla, baina oraindik ikerketa asko egin beharko dugu garbi ikustera iritsi arte.

8. Nafar erromantzea. Eta honeraino iritsi nahi nuen. Badira euskaraz hitz ugari gaskoitik edo nafar erromantzetik heldu zaigunak: *arrangura*, *tristura*, *ardura*... De facto, nafar erromantzeren gunea, gaztelaniatik eta aragoieratik desberdina izanik, komunikabide korapilo baten tartean murgildurik zegoen Erdi Aroan, eta erabat garrantzitsua da komunikabide korapilo bezala, benetako zubia nafar erromantzea bihurtuz, gaztelania eta aragoieraren artean Hegoaldean eta gaskoi eta okzitaniar arte Iparraldean izanik. Ez dezagun ahaztu, lehendabizi idatzitako euskal testua, Bernard Etxepareren *Primitiae Linguae Vasconum*, gune horretatik etorri zaigula erromantze (gaskoi edota nafar erromantze) grafiaz idatzirik.

Eta arabieratik etorriak izan direnak: *azukre* (edo *sukre* Iparraldean, frantsesez edo katalanez bezala), *al baitari*¹², *laranja* (edo *liraina* edo *naranja*), *¿ez* ote dira nafar erromantze bitartekoak euskarara sartu izanak?

9. Erromantzearen aldetik lexiko arloan Carmen Isasik aztertu ditu nafar erromantze eta bizkaitar erromantzeen artean agertzen diren harreman historikoak (prestatzen), ez bakarrik gaskoitik (¿ala nafarretik?) datozen maileguak (*ostalaje*, *logaje*,

6 Zarautzen Gabonetan kantatzen genuen bezala: “Salto ta brinko, salto ta brinko, mendian barrena, Jesus adoratzera ahal dan azkarrena”.

7 Ikus Txomin Peillenek (1998) aipaturiko *andoila*, *tripot*, *gola* eta horrelako beste batzuk.

8 Larramendiren hiztegian SUPREMA CONTIGNATIOren balioa bezala azaltzen da.

9 Ondoan latina CONCLAVE ipiniz.

10 Ikus DCECH s.v. *camara*.

11 Ikus L. Michelena, *Apellidos Vascos*, 301 eta 347.

12 Atzo goizean Miren Azkaratek esan zuen Hiztegi Batuaentzat *al baitari* oso hitz preziatua zela, garai batean beste hizkuntza batetik hartua izan arren.

carcelaje, pobrezaie), baizik eta *forano* ‘kanpotar’ (Aragoi, Nafarroa eta Errioxan), *merçero* edo *bolsero* ‘diruzain’). Hori baliteke erakustea, nire ustez, komunikabidea irekita zegoela erromantze eta euskararen artean, bata nahiz bestean.

10. Beste alde batetik, gogora dezagun Tovarrek hil baino lehenago idatzi zuena (nahiz eta hil ondoren argitaratua izan): Rhin Ibaiaren alpetar aldi latinetik hartutako mailegu asko ez ziren inoiz idatzian sartu (“no entraron nunca en la lengua escrita” [1997]), bi mila urte eguneroko hizketan iraun arren (“a pesar de que ha perdurado casi dos mil años en la lengua cotidiana no literaria” [1997]).

Azken finean badugu Euskal hiztegia: *patata, platan, tomate, kanoa* eta abar (gaztelaniatik hartuta izanik aspaldidanik seguru asko).

11. Miren Azkarate eta Patxi Altunak (2001) euskal morfologiaren historiari buruz argitara eman duten liburua irakurtzeko ez dut oraindik astirik izan, baina pentsatzen dut laguntza handikoa izango dela euskal-erromantze harremanak ikeritzeko, hain zuzen ere artikularen sorrera euskaraz eta horren harira euskal erakuslearen sistema zaharraren (bi edo hiru gradukoa zen argitzeko) azterketa, izen sintagma mugatu eta mugagabearena (hau da, artikularen erabilera), baita aditz flexioko morfemen historia eta abar.

12. Sintaxian gauza bera gertatu da. Urte hauetan Pragmatika izeneko metodologiak, ez idatziari, baizik eta hizketari begira eraman ditu aurrera bere lanak. Gaur egun egin beharko genukeena hauxe da, alde batetik “conectores pragmáticos” izeneko partikulen historia adierazi, zein modutan azaldu ziren eta zer funtzio betetzen duten euskararen gainera, *bada...* eta abar, eta batez ere gaztelaniatik hartuak direnak: *según eta*, eta abar. Baita beste esaera desegokiak: esate baterako, *zergatikan*, batuan bazterturik izanez. Hauek denak aztertzeke Lourdes Oñederrak (prestatzen) balio handiko plangintza egin du azaltzeko dagoen artikuluan batean, Valentzian eginiko espainiar hizkuntzaren historiari buruzko V.garren Kongresuan aurkeztu zuena.

13. Badago *Ibaizabal* izeneko aldizkarian idazle bat “Euskaldun Erdaltzalea” bezala sinatzen duena. Idazle honek ideia berarekin bueltaka aritzen da eta honela idazten du: euskaldun batek gaztelania (erdara azken finean) dotore egiten duela uste du, baina benetako erdara kaskarra erabili. Bere idazkiak nahaste guztiz beterik daude, “komeria aldean” moduan. Oso interesgarria da ezagutzea erretratzen duen euskara-erdara nahaste hori: hitz egiten duenean ez da konturatzen egiten duena gaztelania ez denik¹³. Gauza bera aurkitzen dugu gaur egun uruguaitar eta brasildarren mugan, portugesa eta gaztelania nahasten duten hizkuntzalarien artean. XX. mendearen hasieran euskara eta erdara berehala bizi ziren Euskal Herrian, baina nahaste honek ez zuen hizkuntza berririk sorta erazi: gaztelania goraka joan zen, euskara gutxitzen ari zen bitartean (Echenique, 1997). Orain, XXI. mendearen, zorionez, gauzak aldatu egin dira, zertxobait behintzat. Eta XXI. mende honetan, testuen hizkuntzalaritzak alde batetik eta pragmatikaren bestetik, bata bestearen beharraz hartu bezain laster, elkar osatu eta aberastu egin dute. Horrek esan nahi du metodologiaren aldetik Filologiak zerbait berririk baduela betiko gaiak ikuspuntu eraberritu desberdinetatik begiratzeko.

14. Bukatzera noa. Euskal erromantzeen artean izandako harremanak aztertutako beharko ditugu Soziolinguistika eta pragmatikari begira, hau da, batez ere hizketari zerbait gehiago begira.

¹³ Gure artean, gu geuk esaten genuen Zarautz aldiari: ¿*qué tal, qué tal?*:- *bastante petral*; eta ez genuen pentsatzen *petral* hori euskara zenik, baizik eta gaztelania. Nahaste hauek normalak izaten dira bi hizkuntza edo gehiago egiten den tokietan.

Egia da iraganera begiratu ezkerro euskara eta erromantzeen artean izan diren harremanek gehienez diglosiaren eragina erakusten digutela; ez dut uste, ordea, kasu guztietan horrela izan denik (euskara *ispilu*, besteak beste [esate ximple baterako], *albaitari* edo *telebista* bezala, neologismoak dira edo ziren; horrelakoak garai guztietan izan dira (eta izango dira) eta ez dute diglosiarekin zer ikusirik. Bestaldetik, hasieran esan bezala, kontuan hatu behar dugu erdaraz, gaztelaniaz, euskaratik datozen maileguak ere baditugula. Arrazoiz beterik esaten du Txomin Peillenek (1998) euskararen latinistek edo latina aztertzen dutenek latina besterik ez dutela ikusten, erromanistek erromantzea, eta abar. Hori egia izanik, esan dezagun beste batzuk euskararen historian gertatu den guztia diglosiaren bitartez esplikatuta nahi dutela. Baina bakoitzari berea eman behar zaio, hori da koskarik zail edo neketsuena eta hemen izaten da maiz, nire ustez, Filologiaren aldetik oztoporik handiena.

Egin diren lanek hilarriei buruz edo lexikoari buruz, orain arte dakigunez, Euskal Herrian eta baita inguruko lekuetan ere, komunikabide besterik ez didate erakusten. Eta dena dela, esan bezala, susmatzen dut nafar erromantzea laguntza handiko izango dugula zentzu horretan aztertzen irauteko. Ez da ahaztekoa etorkizunera begira gerta daitekeena, baina hori nire ikerketen mugatik irten den kontua da.

Badakit arlo honetan oraindik arazo anitz dagoela argitu gabe. Pentsatzen dut eztabaidatzeko bizitza guztia eramango gaituen denbora luze izango dugula (batzuentzat luzea izango da, besteentzat laburra, baina gizarteari dagokionez luzea izango dela pentsatuz eta nahian ari naiz, eta gizarte filologikoari buruz mintzatzen ari naizen ezkerro, batez ere euskal gizarte filologikoari eta nire iritzia eman behar baldin badut, Filologia eztabaida dagoen lekuan nahitaez aurkitzen dela esan beharko nuke.

Gogora dezagun behin Joan Corominas erromanista (batez ere erromanisten artean katalanista) ospetsuak esan zuena:

“La historia de una lengua no se comprende sin la historia de las lenguas con las que ha estado en contacto; por lo tanto, no tiene sentido enfrentar una lengua con otra, ni un hombre con otro”.

Eta gure Mitxelenaren (1960b) hitz batzuk aipatuz benetan amaitzera noa:

“En Vasconia y zonas vecinas, el contacto entre romanistas y vascólogos puede ser tan fecundo como es estéril su alejamiento, fundado en prejuicios y en limitaciones subjetivas, y no en la realidad de los hechos que han de ser estudiados”.

Eskerrik asko.

* * *

AIPAMENAK:

- AZKARATE, M. ETA ALTUNA, P., (2001), *Euskal morfologiaren historia*, Donostia.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, A., (1996), *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzionak (V-XI.mendeak)*. I. *Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo.
- COROMINAS, J., Y PASCUAL, J. A. (1985-96), *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Madrid.
- ECHENIQUE ELIZONDO, M. T., (1984¹), *Historia lingüística vasco-románica. Introducción a su estudio*, Donostia.
- (1987²), *Historia lingüística vasco-románica*, Madrid.
- (1997), *Estudios de historia lingüística vasco-románica*, Madrid.
- (1999), “Protohistoria de la lengua española en el primitivo solar castellano”, *Actas del IV Congreso Internacional de Historia de la lengua española*, Logroño, 39-57.
- (prestatzen a), “Algunas consideraciones sobre préstamos léxicos vasco-románicos”, *Homenaje a F. González Ollé*, Pamplona
- (prestatzen b) “Confluencia de lenguas en el área pirenaica en la época de orígenes”, *Actas del Congreso de lengua y toponimia pirenaicas*, Valencia.
- ELHUYAR (ed.), (2000²) *Euskal hiztegi modernoa*, Donostia.
- GORROCHATAGUI, J., (1997 [1995]), “Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas”, *Veleia*, 181-234.
- (1995), “The Basque Language and Its Neighbors in Antiquity”, *Towards a History of the Basque Language* (J. I. Hualde, J. A. Lakarra, eta R. L. Trask arg.), 31-63.
- HAASE, M., (1995), “Amikuzera”, *Euskal Dialektologiako Kongresua* (R. Gómez eta J. Lakarra arg.), 173-188.
- ISASI, C., (prestatzen), “Documentos navarros y documentos vizcaínos: algunas coincidencias”, *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la lengua española*, Valencia.
- LAKARRA, J., (1998), “Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa”, *Uztaro*, 25, 47-110.
- LARRAMENDI, M., (1745). *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, Donostia.
- MICHELENA, L., (1960a). *Historia de la literatura vasca*, Madrid.
- (1960b). “Prólogo”, E. De Arriaga, *Lexicón Bilbaino*, pp. 5-8, Madrid: Minotauro.
- MUJICA, L. M., (1982). *Latina eta erromantzearen eragina euskaran*, Donostia.
- MUGICA, M., (1996). “Notas de fonética histórica y toponimia. 1. Sobre cronología de los cambios fonéticos”, *ASJU*, XXX-1, 219-238.
- NITTA, M., (prestatzen), “Romanceamiento de las sibilantes vascas en la toponimia de La Vizcaya (Navarra)”, *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la lengua española*.
- OÑEDERRA, L., (prestatzen), “La cabeza es para andar; sobre el español hablado en zona vasca”, *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la lengua española*.
- PAGOLA, R. M., (1995), “Nafarroako hizkerak”, *Euskal Dialektologiako Kongresua* (R. Gómez eta J. Lakarra arg.), 255-295.

- PEILLEN, Tx., (1998). [1995], *Les Emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*, Madrid.
- SAYAS ABENGOECHEA, J. J., (1999). "De vascones a romanos para volver a ser vascones", *RIEV*, 44-1, 147-184.
- SEGURA MUNGIA, S. eta ETXEBARRIA AYESTA, J. M. (1996). *Latinetik euskarara*, Bilbo.
- TOVAR, A., (1997). *Estudios de tipología lingüística*, Madrid: Ediciones Istmo.
- TRASK, R., (1997). *The History of Basque*, London / New York.